euskal-oria

Igandean Elgoibar'en

¡A zer bazkari alaia «Aberri»'ren omenez egindakoa!

Batzara amaituta

guziok batzokitik irten eta Butron'gora jo genuan "Mirentxu"k zer bazkari jari ote zigun jakitera. Jakitera ta jatera. Jakite utsarekin gelditzeko gozoa zegon an jendea.

Nik orduako nere guardasola utzia nuan "Mirentxu"neau, Doporto' ren antzera "ankia" sartu nuala iruditu zitzaidan ezkero. Ta patxara edeŕean eldu giñan guziok jatetxera.

Bazkaria bere "tenplean" zegon. Eta guziok, "Tene"k besterik esan aŕen, "tenpleko" bazkariari arpegi obea jaŕi genion.

Nortzuk giñan

Ortzak zoŕotz eta sabela uts zegoala, bota genuan (ez, gaizki diot, "Txaldatxur"ek bota zuan da) papertxo bat, batzaŕean gure lan eginbeaŕaren "portiza"rekin ezin bildu izan genituan batzarkide izenak nolabait jasotzeko.

Ta norberak izenpeturik ona bazkaldar guzien izen ordeak:

Abeŕi, Ikur. Ataŕene, Altzeta, Otaŕa, Anastaxio. Atxuri. Zonzezke. Zebain. Aingeru, Goikolako txoria, Leizape, Luzear, Txaldatxur. Izparkari. A-Bi. M'dar G. Lebitaŕa, Andoni, Biriatu, Aloña, Basaŕi, Txaranbel, Euskal iŕatsaioko pianista, Muru mendi, Alberdi, Ixaka. Miren'en alaba bat, Mokoroa. Mujika. Itziartxo. Lizaŕegi, Mendi Lauta, Ayanbe, Arantza, Maitxo, Intza, Zoŕospe. Txori Eŕeka. Intxiŕi. Jo ta ausi. Txiŕi. Aritzeta, Uztuŕe, Laŕaitz, Zimitz, Yolande, Arantxa, Armoya. Arkaitz arte. Txiki alai. Otxolua. Dris dras, Zapelaitza, Goxo goxo, Lakatza, Kaiku, Aixerixa, Gotrole. Litargi. Udala mendi. Laŕeategi. Azpiarte, Garate, Kardantxilo, Eŕotari, Gogoŕa, Egi alde. Belaustegigoitia, Baŕensoro, Artibai. Abertzale. Oraitz, Agarel, Abeletxe, Basatxori bat. Jexuxa. Ira, Basanaitz, J. Elgea. Mañari'ko, Tene, Burni bide, Xapi, Murugain, Endoya, Burni bide. Gurutzondo. Arno mendi, Andoni ta Lauaxeta.

Ordezkoak bialdu zituzten Baso lore, Zapel, Txanbolin. Ernaizu ta Kukupeta'k.

Mirentxu'k naiko lan zeukan sukaldean guretzat bear aña osatzen.

Zizka mizkak jan orduko astu genituan batzaŕeko eztabaidak: izan ere euskaldun arterako utzi bazkariari, ez dago au añako pakegilerik.

Salda edeŕa ta ugolua sekulako "estorbo"akin ekaŕi zizkiguten bereala. Ta inbiritan ez gelditzeaŕen bitatik artu genuan.

Gero beŕiz legatza prejituta alde batetik eta bestetik egosita maionesarekin, batera etoŕi zitzaizkigun, eta oni koxk eta ari koxk, bitatik proatu genuan.

Ez genuan alare naiezik utzi ondoren ekaŕitako olo eŕea. Gozoa zegon, aŕanok ezpadu.

¿Ta letxua? ¡Ene! Abeŕi'k ez ezik eragin zioten aldamenetan zituan mutil zaŕak ere.

Ta ontan, postretan gerala, arnariak ta esne gozo izoztuarekin ezin aserik ari giñanean, poxpolintxo bat, Mirentxu'ren alabatxo polita esan zigutenez, uŕeratzen zaio "Abeŕi"ri ta loreak eskeintzen dizkio. Esan zuanik ez genion entzun txikiari baña bai Abeŕi'ren biotzikara nabaitu. Loreai begira ainbeste denboran egon ondoren, ala zion andik laster bere betiko aldarte onarekin: "Y, Luzear, andrerik ez diat eta, mixerikordira bialdu bearko diat au".

Bazkal azkenetan giñala, sortu ziran txistulariak ere. ¡Ura jotzea! Atsegin biziz entzun eta txalotu genituan. Bai "Litargi"k "Txistulari" aldizkingirako lanak eskatuaz egin zigun itzalditoa ere, egokia izan zanda. Gero beŕiz iru idazle izan genitun txistulari.

¿Ta "Baseŕi"ren bertsoak? Txalotxaloka artu genituan, batez ere "abeŕiak "Abeŕi"ri andre koxkor bat artzeko eskatzen diola" esanaz bukatu zuana. Ez nituan bertsoak artu, gero eskatzeko asmoz... gero beŕiz astu ta ona orain bertso gabe. Alare larunbatez egin eta igandean ezin argitaratu izan genituan bertso oetxek emen diran ezkero, or dijuazkizute besteen ordez:

¡ZAITU GAITZAZU!
ABERI'RI BIOTZEZ

Biotza dut gogo betean;
olerkari esnatu bainaiz
izan ere... lumatxoa... ¿noiz?
eskutaratu, gaur ezean?

Bizitro bear nuke ari
ta eskariz ditut bertsoak
gartsuki zuzendutakoak
euskaldunon zaindariari.

Aldiaren zoritxar bides
len ziranak, aberats, alai
nola Gipuzku ala Bizkai
¡oŕa oraiñ! itun... negaŕez...!

Begira noiz nai egun argiz
lenago ikusten etzana
zoritxaŕak dakar gugana
¡langileak kaletan dabiltz!

Emazte ta umetxoak
gizona kaleratuakiñ
zer daukaten guziak jakin
gose maltzuŕa... ¡gaxoak!

Baltaere nekazaria
Ondatu du ugoldeak
eta izan ditun kalteak
oŕ utzi du... eŕukaŕia...!

Ene...! goi ortatik Iñaki
begira, kale basaŕiak
ondatu bañolen guziak
¡aŕen! ¡izan gugan eŕuki!

Euskoen zaindaria zu
ta euskoak laguntza eske
bizitzeko gaurtik aske
pake Donean zoriontsu.

Biotza dut gogo betean;
olerkari esnatu bainaiz,
izanere... lumatxoa, ¿noiz
eskutaratu gaur ezean?

BASAŔI

Zarautz'tik.

"Basaŕi" bertsotan ari zala 38 uŕutidatz jaso nituan. Ez guaz guziak ziotena azaltzera, bai ordea nortzuk bialduak ziran; Ernaizu (Etxaŕi Laŕaun), Aŕesigor, Txadon zaia (Astigaŕaga), Lekonde (Urkaregi), Zudupe. Atxondo, Maitane (Azkoitia), Murumendi (Isasondo). Jabier Zaŕa. Apala (San Lorenzo), Talo ta Iziartxo (Eŕezil), Aŕugain (Espinosa): Amagoya, Uretabaŕen (Tabira), Irular, Laŕeko (Iruña), Uŕeta (Lasarte). Miren Karmele Zestua): Erlomendi, Igeŕa, Ituŕi txiki (Azpeiti), Oñazkaŕa (Andoain); Beristain, Ibiritxo, Nikomedes. Ulazia'tar Esteban, Maria. Bene, Fide ta Arantxa, Aŕasate. (Mutriku); Aitzol (Donostia), Lete (Soraluze). Zeleta. (Logroño), Agiŕetxe (Orio): Belumendu (Gernika): Maite (Murgia); Orixe (Orexa). Aŕipe. Aŕi Gotzon (Uŕetxu); Mendi xuri (Oŕeaga), Elordi (Aŕua), Luistar Itxasgain (Cadiz), Zugazti (Altza), ta Ixilik. Otzategitxu'ko Jon (Santander).

Talo ta Itziartxo'renak onela zion: "Gure aguŕik xamuŕena Abeŕi jaunari, ta neskazar edo dontzelaren bat berari erosteko arpiderik irikitzen bada, gurekin kontau".

Ta barkatu, irakurle. Nik gaur bukatzeko asmoa nuan, baña... ezin. Ia biyar esaten dizudan zergatik.

Luzear

Poxpoliñak ditugu gaurkoan

Bi aldiz izanak ditugu len ere gure poxpoliñak iŕatetxean, ta ona bi ezkero irugaŕena seguru dala dion esaera indarturik, gaur irugaŕenez txiki maitagaŕiak gure iŕatsaioen apaingaŕi.

Nexka ta mutiko izango dituzute gaurko abeslari ta "itzontziak". Euskaldun nexka ta mutikoai eskeñia dezute beren lana. Guzioi erakutsi nai bailieteke berak dakitena.

Jaŕi itzazute beraz, gaur zortzietan, al dituzuten nexka mutil guziak zuen iŕatentzuki auŕean, ta gure txikien abesti ta beŕiketak, berak bezelakoxeak diranen jarduna atsegin izan baietz.

Opoŕaldia izan dute poxpoliñak, eta ainbeste denbora ezer egin gabe igaro ondoren, gaur ekitekoak dira beŕiz beren lanari. Ta gaurko iŕatsaio au izango da lan oien asiera.

"Jaiki, jaiki" euskal iŕatsaio ereserkia abestuaz ekingo diote Ta onen ondoren beren ereserkia, "Pra pra pra".

Gero nexkak "Gona goŕitxo" "Elixebatxu", "Txintxin txirikitin txorie", ta "Soinketa" abestuko dituze.

Mutikoak beŕiz "Kirikiriken", "Ogezulo", "Kataplan" ta abar.

Soroeta'tar Miren Koro txiki-txikiak "Eŕiko pesta" abestuko du.

Pianojotzale txiki bat ere izango omen degu.

Ta beste ipuitxo ta bakaŕizketen batekin osaturik, guzieak "Agur jaunak" esanaz uŕen arte ixilduko gera.

Entzule adiskide, batez ere auŕak ekaŕi zaizkiguzu gaur, gu oiexen bila juango gera iŕai bidez ta.

SALON NOVEDADES

Concierto de canto y piano

Hoy, miércoles, a las siete, tendrá lugar el interesantísimo recital de canto y piano, por las distinguidas aficionadas Amada Muriedas de Zaldo y Jeanne María Paulian, con arreglo al programa que ayer publicamos

Dada la expectación despertada por el anuncio de este concierto, no dudamos de que el salón ha de verse lleno y recomendamos a los rezagados que se apresuren a recoger sus entradas en el Centro de Cultura Femenina

¿BIDE GALDUTA?

Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!
(Lizardi)

Ta iluntzen ariki; naiz noizpeinka an or piztu oi diran izar dizdikoŕaz liluratuta, guk besterik uste.

Izar oiek gure eguzkia baño askoz goriago, dizdiratsuago izan aŕen), beren argi ta beroa ez bai ditezke guganaño el. Ain daude uŕuti!

"Luzear"ek aitatutako Altube jaunaren itzaldia entzunez gero, gogai zoŕotz auxe aŕi zait baŕena zula zulaka.

Ain zuzen, aren iritzia egiztatzen etoŕi zait oraindik orain onoko gertaera au.

Euskaldun jator bati Euskal Oŕi'ko idazki bat irakurtzen ari nintzaion.

—Zuk bai eŕez. Gutzat ordea zala da oŕi, —eraso zidan.

Norbaitek, idazle batek auŕegunean eŕezegitzat botatako idazkia euskeldun kutsugeak ulertzen ez. Berikeririk ez zenuten lan aretan arkituko. Gure kutuna apaindu beaŕez ordea, ederki guziak gutxitxo iritzita or gabilzkizute izkelgi guzietan baŕena bila bilaka.

Idazleak eŕiagandik geitxo aldegin ote degun alegia. Abiada aundiegia ote daramakigun batasunari buruz, oŕa.

Donosti'ko lantegi bateko nagusiak EL DIA irakurtzen:

—Oiga, X., ¿que es esto de "nekazari"?

—Labrador.

—Nunca le hemos llamado así, sino baseŕitaŕa. Cada día inventan cosas nuevas.

Ori ziona ez degu eŕikotzat joko. Ez ta amaren magala utzi zunetik euskera zanik ere oroitu ez, ta orain azterketak dirala bide ordu batzuk, gogo txaŕez agian, euskera ikasten ari izan dala ta, bere buruari edozer ulertzeko gai irizten dion aŕoputza ere.

Oiek ez dira euskaldun eŕia.

Goizetik gabera, jekitzen diranetik oeratu arte beren artueman, jolas, otoi, abestietan, noiznai, ta nornairekin euskeraz ari diranak oiek osatzen dute euskeldun eŕia.

Oiek dira Euzkadi'ko eguzki. Apurka, gure oaŕezaz, argi ta beroa galtzen ari dan eguzkia. Abertzaleok uste osoz:

"...laister dator eguna"

abesten ari geran bitartean, aitzen di joakigun eguzkia.

Ta idazleok eguzkiaz aztuta, izar beŕiren bat non arkituko ortze sakona aztertzen buru belaŕi

Bata euskal jakintza gabe gelditzeko bilduŕez, dar dar. Bestea eusko aloŕean joŕa ta joŕa iraka biltzean onekin batera garia ere sasiratuz apika. Arako aiek euskera noranaikoa ikusi arte onik ez.

Ortxe dauzkagu ba, latera ta eladera jakite egoz goienetaraño igoak, nora naikoak.

Ta ala ere, ez dezute noski gure euskera zaar maitea oien antzeko ikusi nai.

Zer dijoakigu guri Europa'ko ikastola nagusienetan euskera irakasten ari dirala ta, bitartean geok erdaldunduaz, izkera bizien artetik, arek iges egiten badigu......

Oneraño idatzia neukala, aspaldian argitaratua bear zukean onoko au, beronekin zer ikusia duten zerbaitzuk amai ta luzapidea eskuratu dizkidate.

Irular'en idazkiak, ene iritzi berberak eragiña, auŕera jaŕaitzeaz askatu nau, Oiartzun'go Pilipa'ren aguŕak beŕiz luzarazi.

Abeŕi buru dala igandean goi aldu nai genituan eŕi idazle taldeko lagun zintzo, jator, langilenetakoa genun bera.

Ez da zurikeria. Madrid'ko Salesas Reales'etaraño Euskal Oŕi au iritxiko ez dala bai bai-dakit.

Argia sortuz gero Arkale'ko aitz zaŕetatik amaika izpi gozo epelek alaitu dituzte euskal oŕiak.

Eŕi idazle gaŕantziaz jabetu geran une berean aietako batek alde.

Argitarako, eguzkia bezelakorik ez dala oartuta aren laztan gozo bila leiatsu goazenean izpi dizdikoŕenetakoa okertu Jainko Jaunak. Berak ugalduko al ditu ordezkoak, Pilipa'ren otoi aŕen, Jauna.

IRA

Donostia.

Errera-Altza

ERMANUARI OMENALDIA. — Auŕetik esana zegon bezela, juan dan igandian zan askeneko 19 urte abetako lanagatik ondo irabaziya zutenari omena: eta egitan izan dala oroigaŕiya.

Izpaŕingi periodiku ontan azaldu zan egitarau edo programan esaten zuan bezela asiera eman zizayon goizeko 10 tan Jaupa edo meza nagusiyakin, izanez bai mezaemalia, eta bai apaiz meza emanlaguntzaliak. Ermanu aben eskoletan ibilitakuak.

Itzaldi sermoia egin zun Aita Akilino karmeldaŕak, au ere emengoa eta eskola ortan izana; lendabiziko agurketa euskeraz egin ondoren jaraitu zun erderaz, eta ondo garbi azaldu zun bere ta eŕeratar danon esker sutsuak urte oyek danetan emengo irakasle izan diranari, eta zenbait añeko kaltia izango dan danontzat geyago berak ezin jaŕaitzia orain arte ain ondo bete duten lanari; eta ori galerazten dutenentzako ere izan zitun itz egizko batzuek; bukatu zun adieraziyaz gurasoari beren betebiaŕak beren umetxoak biar bezelako katoliko Jaun goiko zaliak izateko, batez ere oraingo ekaitz aldi onta.

Oso entzungaŕiya izan zan bere itzaldi au, eta keskik gabe entzule danari buruan sartu zayena bere esate egizkoak.

Bukaeran otoitztu zan "eŕesponsua" H. Carlos eta eskola ortan izandako beste il diranaren alde.

Eliza'ko saŕeran eta irteran Eŕera'ko Batzokiko ezpatadantzari talde aun diyekoenak beren ezpatakin egiten zuten arku petik pasa ziran omenalduak, apaiz eta beste jaunak.

Mesa bukatuta San Luis'ko eskolan bildu ziraden alaitasun edeŕian aspaldin ikusi gabeko asko, alkar agurtuaz, izanik au danentzat oso gogozkoa.

Guraso katolikoaren alkartasuneko lendakari dan Landa'tar Paul'ek lendabizi itz egin zun, azalduaz bere eskeŕak ala merezi dutenari beren lanangatik eta erakutziyaz bere samintasuna beren aurkako lege zital oŕegatik; gero emengo paŕoko On Zakarias' ek, eta askeneko Ermanu danen izenian, orain emen buru egiten dunak, oso sentikor azalduaz bere eskeŕak, Altza'ko eŕiyak azaltzen ziyen maitasunagandik, batez ere orain berentzat (eta danontzat) ain itun zaigun egun abetan.

Argazki edo fotografi ugari atera ziran; eta gero jendia juan zan Altza gora, berebil edo automobil ortarako zeudenetan, bada goiko "Martilun" izena dun jatetxian zan bazkariya.

Guraso, ikasle izandakoak, omenalduak, eta aben lanak ondo ikusi dutenaren artian, beŕeun'dik gora ziran mayian; eta danak alaitasun onian, bazkari oso edeŕa zegonen kontuak eman zuten.

Gero aŕatsaldian, bi pelota partidu polit izan ziran, jokatuaz lenengoan orain eskolan dabiltzaten lau mutilen artian, eta bestian lau len ibilitakoak; nola partidu bat ala bestia ederki jokatuak izan ziran, danentzat izanik txalo ugariak.

Eta bukaera eman zizayen jai aberi ezpatadantzakin, dantzatuaz lau taldek, bi altzatar eta bi eŕeratáŕak, abentzako ere txaluak izanik.

Ola igaro zan danontzat oroigaŕi izango dan egun au.

Onelaz agurtu zuten altza eŕerataŕak esker sutsuenakin ondo merezi duten Ermanuak, izanaz abegandik oso ondo artuak.

Badijoazkigu Ermanu agurgaŕi, irakasle on eta danen maitasuna dutenak; Jaingoikuak nai dezala lenbaitlen etortzia.

IÑAKI DEUNAREN EGUNA. — Gipuzkoa'ko zaindari dan Iñaki Deunaren eguna emen ere zertxobait ospatu degu; Batzokiyan ikuŕiña zabalduta egon zan egun guztin, eta etxe batzuk ere ikusi ziran ornituta leyoak eusko margo koloriakin.

Emengo ezpatadantzariyak Donostia'n Atotra'ko zelaian izan ziran jai ikusgaŕietan ziran: eta bestela ere jende asko bertaratu zan emendik.

Itani

La sesión municipal de hoy

Orden del día de la sesión que celebrará hoy el Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián:

Moción del concejal señor Trecu en relación con la Escuela Elemental del Trabajo.

Circular de las Comisiones Gestoras de las Excmas. Diputaciones de las Provincias Vascongadas, ampliando el contenido de una convocatoria, en relación con el Estatuto Vascongado.

Informes de la Jefatura de Estadística proponiendo se declaren vecinos don Juan Sanz, don Pedro Martínez de Irujo, don Alejandro Eguía y sus respectivas familias.

Extracto de acuerdos adoptados por la Corporación durante el mes de mayo pasado.

Jornales y cuentas.

INFORMES

DE LA COMISION DE FOMENTO. Proponiendo el nombramiento de atabalero de la Banda de músicos juglares.

Idem el nombramiento de Conserje del Teatro Principal.

Idem se acepte el donativo que hace don Angel Pirala con destino al Museo municipal.

DE LA COMISION DE OBRAS. — Proponiendo se apruebe la liquidación de la 25 semana de los trabajos en los desmontes próximos a la Fábrica de Gas.

Idem se autorice construir un chalet en terrenos de Marochipi.

Idem se autorice la reforma de la casa número 32 de la calle de Zubieta.

Idem se autorice la construcción de pisos económicos sobre las casas números, 10 a, 10 b, y 10 c., de la calle [illegible]racruz.

Idem se conceda al Cuerpo de Bomberos un premio de 2.000 pesetas por su comportamiento durante las últimas inundaciones.

Idem la compra de las casas números 6 y 8 de la calle 31 de Agosto y de un solar y huerta existentes en la misma calle detrás del número 38.

DE LA COMISION DE GOBERNACION. — Idem el nombramiento de un guardia municipal efectivo.

Idem la reglamentación del tráfico en la Nueva Avenida Ategorrieta y en otras vías.

DE LA COMISION ARTICUTZA.— A la provisión de la plaza de guarda de los depósitos de agua.

Sobre construcción de un depósito de agua en Igueldo cuya autorización solicita la Excma. Diputación.

DE MERCADOS, PESCADERIAS Y MATADEROS. — Proponiendo se autorice a la Comisión, para recibir proposiciones para adquirir una báscula automática con destino al Matadero.

Proponiendo se prorrogue una licencia a un empleado de Arbitrios.

Presentando una ampliación al informe que se halla sobre la mesa en relación con el asunto de adjudicación de puestos, etc., en Mercados.

ASUNTOS SOBRE LA MESA. — Informe de la Comisión de Mercados, etc., relacionado con la adjudicación de puestos en los mercados a las actuales revendedoras.

Informe de Obras proponiendo se devuelva a don Ramón Esnaola la fianza que causó con motivo de la adquisición de una bomba de achique destinada al Cuerpo de Bomberos y la celebración de un concursillo para la adquisición de dos bombas de dicho material.

Informe de idem, proponiendo el nombramiento de capataz de calles.

Informe de idem., respecto a un trozo del camino del barrio Ibaeta.

Informe de Gobierno Interior proponiendo se pronuncie respecto a la compatibilidad del desempeño del cargo de agente o guardia armado y la afiliación a determinado organismo o agrupación. Voto particular.

EN EL SALON MIRAMAR

Hoy estreno «Almas torturadas»

Estrénase hoy en este aristocrático salón la producción "Columbia Pictures", cuyo título encabeza estas líneas; se trata de una película interpretada por tres grandes artistas, los cuales son Evelyn Brent, Conrad Nagel y Charles Bickford y su asunto es una bella comedia dramática, en la que una joven mundana, un rudo y temerario contrabandista de licores y un joven místico que siente despertar las humanas pasiones, componen el eterno triángulo amoroso presentando las más características psicológicas.

El "film" está dirigido por el gran director inglés John Francis Dillón y su versión es inglesa.

Este programa irá acompañado de un selecto complemento y las horas del espectáculo serán las de diario.

IMPERMEABLES "EL BUFALO" MARCA REGISTRADA

FABRICA DE IMPERMEABLES

EL BUFALO

Primera en España

He aquí cinco causas que han contribuído al éxito obtenido por impermeables "EL BUFALO"

Primera.-Absoluta seriedad comercial.
Segunda.-Esmeradísima confección.
Tercera.-Selección escrupulosa de calidades a precios baratísimos.
Cuarta.-Surtido inmenso, y
Quinta.-La gran experiencia en la fabricación de prendas para la lluvia, desde hace muchos años, ha hecho que impermeables "EL BUFALO" sean solicitados y muy conocidos en todos los mercados del mundo.

Seis grandes Sucursales y 32 Depósitos en toda España

Fábrica y oficinas: Oquendo, 2 — Exposición: Boulevard, 1 — Sucursal: Avenida, 28

San Sebastián

J. M. SANSINENEA
GARIBAY, 5, 2.º :-: Teléfono 1-24-63
ENFERMEDADES DE LOS NIÑOS
Consulta: de tres y media a seis. excepto los miércoles y sábados
Consulta gratuita en la Gota de Leche

TRIKI-TRITXA
Grupos con dos acordeones, cantador y panderetas, para fiesta vasca, se precisan. Indicando detalles y referencias escriban a esta Administración, a las iniciales J. L.

Angel Eizaguirre
MEDICINA GENERAL :-: CORAZON Y PULMONES
RAYOS X Y ULTRAVIOLETA
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5
ALAMEDA, 14, 1.º
Teléfonos 12.509 y 12.450